

# Trantsizioaren alegoriaren isla

Mikel Asurmendi


**N**obela beltza duzu, *thriller* petoa. Irun hirian kokatua eta inguruan garatua –Donostia–Baiona bitarte–. Iragan berriko Euskal Herriaren idiosinkrasiaren isla, argi–seinaleak ilunean. Trama 1975–1981eko aldiari gertatzen da, garai hagitz esanguratsuan: Franco diktadorea hiltzen denetik Tejeroren estatu kolpera bitarte. Alegia, deus ez.

Ordurako, zorionez edo zortiarrez, Meliton Manzanos torturazaila hila zegoen, baina ondorengo garaiko giroa antzemanen duzu nobelan. *Zangotraba*–k giro politiko sozialaren jitea dauka, garai hartako brigada politiko–sozialaren usaina dario.

Joxe (Aduanetako agentzia langilea) eta Edurne (euskara irakaslea eta feminista). Dionisio (sindikalista porrokatua) eta Ixabel (ama zintzoa), eta Miren eta Tximinoa (drogaren menpekoak)

bikoteak dira pertsonaietako batzuk. Euren inguruan Kintanilla inspektorea eta honen ondorengo dabilta. Dama Beltza izeneko bat ere badabil, nobelotan agertu ohi den pertsonaia siniestroa, baita ETAkidea ere, *Azeria* goitizenekoa. Trama hainbat haririk bilbatua da. Hariak orduko jendartearen erretratua josten dute, ederki eta krudelki lotu ere.

Garaia nolako, pertsonaiak halako. Gaurdanik ikusita, haietako



## 'Zangotraba'

**Egilea:** Juan Kruz Igerabide.  
**Argitaletxea:** Erein.

batzuen soslaiak surrealista irudi dakizkigu, Juan Fernandez dektibearena, kasurako. Juan, Joxeren nortasunean abarora erakitako pertsonaia duzu. Pertsona iluna eta gonazalea, besteak beste.

Muga inguruko negozio ilunek zeharo kamusten dituzte pertsonon duintasuna eta koherentzia. Ordea, Joxe eta Juan pertsonaien kasuetan ez dago esaterik –Jekyll eta Hyde pertsonaiaren nortasun kasuetan legez– zein den gaiztoa zein ona. Pertsonok zirkunstantziaren araberrako menpekoak baikara, itxurazko nortasunaren morroiak eta mozorrodunak. Lagun hoberena zangotrabatu dezakegu, baita halabeharrez trazionatu ere.

Juan Kruz Igerabide idazle iaioa eta zaildua da. Eskarmen tuaren idatz leun neurritsu goxoaren jitea eta eitea dauzka *Zangotraba*–k. Erudiziotik ere badu, egileak mito eta klasikoetara jo du nobela janzteko. Atalez atal, hasierako hiru antzerki atal tarte, bizitza misterioa dela auguratzen digu. Egoera eskizofrenikoak jasan ezinean, bizitza tragi-komedia moduan herrestan eraman ohi dugula. «Ohi» esan dut, biziko bagara, une tragikoak egoera komikoak bihurtzen baititugu ezinbestean.

Gertakariak eta pertsonaiak zekenak izan arren, maitekorrak ere badira. Egilearen beraren bizipenetatik eratorriak, antza. Izan ere, zer da bizitza, errealitatean eraikitako fikziorik ez bada? Dyane 6 autoa garai hartako paisaian irudi edo Edith Piaf–en *Non, je ne regrette rien* kantaren hitzak gogoan, orduko pertsonen izaerak xarmaniki erretratatu ditu nobelagileak.

*Zangotraba* fruitu anitz eskaintzen dituen arbolak antzo kimatu, inausi edota irakurri dut. Abar askotariko arbola begitandu zait. Emankorra. Egileak, baina, egungo garaiek –kanonek?– agintzen duten neurri ekarri behar izan ote duen nago. Hau da, narratutako garaia iragan berria da, garaia baina beti aldaberra.

Dena dela ere, nobelagilearen aforismoei kasu egiteak, literaturak bizitza ulertzen laguntzen digu: dena esana dago, baina okerrera egiten du, eta berriro esan behar. Ez gaitzen lerro artean idatzita dagoenari begira irakurri, itsutuko baikara. Joxe eta Juan gogoan, idazlea doble bat dela diot nik ere, baina idazleak berak ez daki norena. Trantsizioaren alegoriaren isla zinez egokia.



## 'Goza daiteke gehiago. Euskaldun baten hizkuntza-bidaia'

**Egilea:** Karmelo Aiesta.  
**Argitaletxea:** Utriusque Vasconiae.

**G**izon optimista da Karmelo Aiesta, lanbidez enpresa aholkularia. Liburuari kontatzen du zer egin duen euskara gehiago erabiltzeko, eta enpresa munduan ikasitakoa eta praktikan jarritakoa baliatu du euskara indartzeko bere ahalegin horretan.



## 'Hemen naiz, ez gelditzeko baina'